# Denbora-

## 1 Margotu eta asmatu

Koloreetako margoak ekarri dizkio Olentzerok Nahiari, baita marrazteko liburua ere. Margotu lauki bakoitza dagokion kolorez. Zer ari da margotzen?

**1- beltza**
**2- zuria**
**3- gorria**
**4- urdina**
**5- horia**
**6- orlegia**



## 3 Itzala

Basora joan, eta basurdea ikusi du Koldok. Azkar ezkutatu da belar metaren atzean. Itzal hauetatik zein da Koldorena?




## 2 Zer dago sobra?

Armen museoa izan zen eskolako haurrek bisitatu zuten azken museoa. Irudi hauetako bat ez dago behar den lekuan? Zein?



- - - - - - - - - - - - - - - - - -

# -pasak

## 4 Osatu esaldiak

Idazlaneko hainbat hitz ezabatu egin zaizkio Markeli. Hitzen ordez marrazkiak jarri ditu.

Jarri dagokion hitza, esaldiak osatzeko.

Har ezazu  eta garbitu ezazu zure logelan dagoen hauts guztia

Nire  berriarekin etxe alboan daukagun aldapa abiadan jaitsiko dut

 berria erosi du nire aitak etxetik lanera joateko

## 5 Osatu hitzak

Txukun-txukun idatzitako hitzak erabat nahastu dizkio haizeak Uxueri.

Mugitu silabak lekuz, hitzak osatzeko.



gu-ze-rai



te-bis-ta-le



gi-rra-ta

Erantzunak: **1.-** Akordeoi bat. **2.-** Aizkora dago sobran. **3.-** C.
**4.-** Erratza, patinete eta auto da falta diren hitzak.
**5.-** Guraize, telebista eta gitarra.

## Flamenkoen dantza

Oin bakarraren gainean egoten dira maiz flamenkoak. Ez dakizue zein nekagarria den hori! Egin nahi al duzue proba?

**1** Jolasean hasi aurretik jokoaren eremua zehaztu behar da, baita zenbat jokalarik parte hartuko duten ere. Binaka edo guztiek batera joka dezakete.

**2** Eskuineko oinaren gainean txingoka eta saltoka hasi behar dute jokalari guztiek. Ezkerreko hanka, berriz, eskuarekin heldu behar dute.



**3** Beste jokalariek oreka galdu eta lurra uki dezaten ahalegindu behar dute jokalariek. Horixe da jokalari bakoitzaren helburua.

**4** Sorbaldarekin edo libre duten eskuarekin bultza egin daiteke, beste jokalariek oreka gal dezaten.

**5** Oin bakarraren gainean saltoka geratzen den azken jokalaria izango da partidako irabazlea.